



FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIEN OINARRIAK

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Fisioterapiako VI. Euskadi Sariak antolatu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan osasungintza arloko diziplina hau aurrera ateratzen diharduten profesionalen lanaren balioa aitortzeko asmoz.

SARIEN OINARRIAK

1. Estatu espainiarreko edozein Fisioterapeuta Elkargo Ofizialetako kide diren fisioterapeutek parte har dezakete, baldin eta Elkargoarekiko obligazioetan egunean egon eta Elkargoak ezarritako ezein zigorrrik ez badute.

Ezin izango dute sariketan parte hartu, ez Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kideek, ezta Saria ebazteko epaimahaia osatzen duten fisioterapeuta profesionalek ere.

2. Parte-hartzea banakakoa zein taldekakoa izan daiteke.

3. Sarien helburua edozein jarduketa-eremutan egindako lanen bitartez Fisioterapiaren aurrerakada bultzatzen duten banakako zein taldekako ekimenak sustatzea da.

Honako 6 kategoria hauek ezarri dira:

- Fisioterapeutarik onena
- Fisioterapiari buruzko informazio-testurik onena
- Fisioterapia arloko ibilbide profesionalik onena
- Ikerketaren Saria
- Karrera amaierako lanik onenaren saria
- FisioLagun saria

4. Sarien zenbatekoa honela banatuko da kategoria batetik bestera:

- Fisioterapeutarik onena: 500 euroko prestakuntza-beka.
- Fisioterapiari buruzko informazio-testurik onena.: Garaikurra eta aitortza-diploma.
- Fisioterapiaren arloko ibilbide profesionalik onena.: Garaikurra eta aitortza-diploma.
- Ikerketa-saria: 1.000 euro eta 500 euroko prestakuntza-beka.
- Karrera bukaerako lanik onenaren saria: 300 euroko prestakuntza-beka.
- FisioLagun saria: Garaikurra eta aitortza-diploma.

Sariaren titularra eta horri dagokion diru-sariaren hartzekoduna aurkeztutako lanaren sinatzaile bakarra edo lehen sinatzailea izango da.

Kopuru horiek egun indarrean dauden arautegien menpe daude, izaera fiskalekoak barne.



FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIEN OINARRIAK

5. Egile edo egile-talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du sari desberdinetan lehiatzeko.
6. Ikerketa edo kazetaritza arloetako lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izan eta baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Fisioterapiako edozein arlori buruzkoak izan daitezke, baina lehentasuna emango zaio egunean egungoari, hau da, gaurko gizartearen beharrezkoen erantzuteari.
 - Euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitakoak izan daitezke.
 - Lanak deialdiaren urtean argitaratutakoak izan daitezke, edo argitaratu aurreko berrikusketaren zain egon daitezke (azken hau ikerketa-lanen kasuan bakarrik).
 - Ez dira onartuko beste deialdi edo lehiaketa batzuetan saritutako lanak.
 - Era anonimoan edo goitizenaz aurkeztuko dira, eta bidalketan, gutunazal itxi batean, egilearen edo egileen datuak bilduko dira (izen-deiturak, egungo helbide osoa, lan-zentroa eta lanpostua, harremanetarako telefonoa eta elkargokidetze-ziurtagiria); gutunazalaren kanpoaldean, lana pertsonalizatzeko aukeratu den goitizena jar daiteke erreferentzia gisa.
7. Sari hauetara aurkeztutako lan bakoitzaren originala bidali behar da –behar bezala koadernatuta, beharrezkoa balitz–, eta 3 kopia Din-A4 neurrian. Era berean, euskarri informatikoa gaineratuko da (pendrive, CDRoma, ...), erabilitako fitxategi eta programen izena zehaztuz. (Gogoan izan aurkezpenetan ezin dela erabili hautagaia identifika dezakeen daturik).
8. Ikerketa arloko lanek eta karrera amaierako lanek orrialde bakarrean eta lerro-tarte bikoitzaz idatzita egon behar dute, gehienez 50 orrialdeko (Din A4) luzeraz eta 11 puntuko letra-tamainaz, Arial letra motaren arabera. Tabulazio, azpimarra, tarte eta iturri mota eta tamaina desberdinen gehiegizko erabilera saihestuko da, besteak beste, eta arau berberak hartuko dira gogoan grafikoetarako eta tauletarako
9. Lanak honela antolatuko dira:
 - Laburpena eta gako-hitzak.
 - Sarrera.
 - Materiala eta metodoak.
 - Emaizak.
 - Eztabaida.
 - Ondorioak.
 - Erreferentzia bibliografikoak.
10. Erreferentzia bibliografikoak ondoz ondoko hurrenkeran zerrendatu behar dira, testuan lehenengo aldiz aipatzen direnen ordenan, parentesi arteko zenbaki arabiarrez identifikatuta. Ahal den neurrian, erreferentzia pertsonalak edo argitaratuta ez dauden bestelako oharrak saihestuko dira. Erreferentzia hauek erabilitako ordenan eta Index Medicus-en erabilitako laburtzapen-sistemari jarraiki aipatuko dira (azken atalean).



FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIEN OINARRIAK

11. Fisioterapeutarik onena, Fisioterapiaren arloko ibilbide profesionalik onena, Fisioterapiari buruzko informazio-testurik onena eta FisiLagun saria.

Fisioterapiaren barruan 2021ean jarraitu beharreko erreferentzia edo eredu bilakatu diren fisioterapeutak proposatu nahi badituzu, aurkezpena ondoren zehazten den moduan formalizatu behar duzu:

- Proposatutako pertsonaren izen-deituak zehaztu.
- Proposatutako pertsonaren enpresaren izena.
- 2021ean nabarmendutako meritu eta balioen inguruko argudioak.
- Curriculum vitae.
- **Oharra: ez dira onartuko eskatutako dokumentazioa erantsia ez duten proposamenak.**

Fisioterapiaren barruko ibilbide profesionalari dagokionez jarraitu beharreko erreferentzia edo eredu bilakatu diren fisioterapeutak proposatu nahi badituzu, aurkezpena ondoren zehazten den moduan formalizatu behar duzu:

- Proposatutako pertsonaren izen-deituak zehaztu.
- Proposatutako pertsonaren enpresaren izena.
- Nabarmendutako meritu eta balioen inguruko argudioak.
- Curriculum vitae.
- **Oharra: ez dira onartuko eskatutako dokumentazioa erantsia ez duten proposamenak.**

Fisioterapiaren barruan 2021ean erreferentzia bilakatu den informazio-testuren bat (kazetaritza-artikulu, irratiko erreportajea, telebistako erreportajea nahiz sentsibilizazio, komunikazio edo kontzientziazio kanpaina) proposatu nahi baduzu, aurkezpena ondoren zehazten den moduan formalizatu behar duzu:

- Egilearen edo egileen izen-deituak zehaztu.
- Argitaratu duen komunikabidearen izena edo, hala badagokio, komunikazio-kanpaina sustatu duen erakundearena.
- Informazio-testua formatu digitalean.
- **Oharra: ez dira onartuko eskatutako dokumentazioa erantsia ez duten proposamenak.**

Fisiolagun kategoriarako irudia, fisioterapia-zerbitzuak eta horien kalitatea, sustatu duten pertsonak, erakundeak, enpresak eta era guztietako organizazioak proposatu nahi badituzu diziplina garatzen lagundu dutelako. (Fisioterapiaren bidez arlo guztietan osasuna zabaltzeko eta sustatzeko estrategiak hobetu direla aintzatetsi nahi da).

- Adierazi enpresaren, pertsonaren edo erakundearen izena.
- Enpresaren, pertsonaren edo erakundearen jardura.
- Nabarmendutako meritu eta balioen inguruko argudioak.
- **Oharra: ez dira onartuko eskatutako dokumentazioa erantsia ez duten proposamenak.**



FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIEN OINARRIAK

12. Lanak eta proposamenak aurkezteko azken eguna 2021eko azaroaren 5an izango da. Epe barruan aurkeztutzat joko dira aipatutako epe horren barruko posta-ziurtagiria duten lanak.
13. Lanak eta proposamenak aurrez aurre entregatuko dira Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Idazkaritzan, edota ziurtatutako postaz bidaliko dira, jaso izanaren adierazpenaz, honako helbide honetara:

C/ Ibarrekolanda 15 - 48014 Bilbao

Kanpoko gutun-azalean honako hau jarriko da: FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIAK

14. Epaimahaiak 2021eko abenduaren 5an jakinaraziko ditu emaitzak, eta horiek 2021eko abenduaren 18an argitaratuko dira, Ohiko Asanbladarekin batera (data hori alda daiteke, epaimahaikideen beharren arabera).

Irabazleei aldeztetik jakinaraziko zaie, lanari erantsitako gutunazal itxian aipatutako egileari edo lehen egileari bidalitako gutun baten bitartez, eta Elkarberri aldizkariaren bidez.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak emandako sariak beste edozein hedabide-motaren bitartez zabaltzeko eskubideari atxikiko dio

15. Epaimahaia Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak izendatuko du, eta gehienez 7 kide eta gutxienez 3 kide izango ditu, den-denak irakaskuntza, osasungintza, ikerkuntza eta Euskadiko Fisioterapeuten Lanbide-Elkargoari atxikitakoak, baldin eta ikerketa-proiektuaren egileak edo laguntzaileak ez badira.

16. Epaimahaiaren epaia apelaezina eta atzeraezina izango da, eta saria hutsik utz dezake osorik nahiz zatika, baldin eta, epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek ez badute gutxienerako kalitate zientifikorik saria irabazteko. Epaimahaiko kide guztiek izango dute botoa emateko eskubidea. Erabakiak Epaimahaiko kideen gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketa gertatzekotan, presidentearen botoaz erabakiko da.

Horren eztabaidak isilpekoak izango dira.

17. Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak saritutako lanak bere aldizkarian –osorik nahiz zatika– argitaratzeko eskubideari atxikiko dio, lehiaketara aurkeztutako gainerako lanak barne, horretarako baldintzak betetzekotan, betiere jatorrizko autoretza aipatuz eta egileari edo egileei aldeztetik egin beharreko aldaketen berri emanez, beharrezkoa balitz.

18. Era berean, EFEOk jasotako lanak Elkargoaren helburuetarako erabiltzeko eskubidea gordetzen du eta, beraz, interesgarritzat jotzen diren lanen kopia egiteko eskubidea edozein bitartekoren bidez zabaltzeko.



FISIOTERAPIAKO VI. EUSKADI SARIEN OINARRIAK

Jasotako datu pertsonal guztiak Sarietan parte hartzeko helburuarekin bilduko dira eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hau garatzen duen gainerako araudian xedatutakoaren arabera. Aipatutako datuak tratatzeko erantzukizuna EFEOri dagokio.

19. Saritu gabeko lanak epaia ezagutzera eman eta hurrengo egunetik hasita jaso daitezke, ondorengo 60 egunen barruan eta aldez aurretik idatziz eskatuta. Epe hori amaitutakoan, ale bat Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren esku utzi eta gainerako kopia guztiak deuseztatu egingo dira.
20. Sariketan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar.